



Motxila bizkarrarean hartu, eta irten ginen aterpetik.

UDA BATEZ

Joxttin

No lo dudé ni un momento. El recorrer el valle de Ordesa y ascender al Monte Perdido era una idea más que atractiva para unos días de verano.

Los pájaros y los arroyos ponían la melodía a nuestro caminar hacia el refugio de Goriz.

En la cima del Perdido, sobre las nubes y las cabezas blancas de las montañas, se descubría el secreto de la atracción que ellas ejercen sobre nosotros.

Cambia el tiempo; entre la lluvia y el sol Ordesa se despedía de nosotros. Al regreso, mi recuerdo para esa Garazi, todavía escondida en el vientre de su madre, la que desearía que un día pudiera descubrir también el tesoro de la naturaleza.

Sarri jasotzen ez diren gonbidaketa horietako bat jaso izan nuen uda batez.

Ezin hobeto zetorkidan bidaia hori. Herriko jaiak ospatuak baikenituen aurreko egunetan eta nola uka hauek beraiekin daramaten antolatze lana eta nekea. Uxatu nahi nituen bai, barrengo katramila eta buruhaustak, egun batzutan bederen.

* * *

Ez ninduen zalantzan jarri erabaki hark. Nahiz eta jaien biharamunean izan, sor niezaiekeen oztopen gogoetak ezabaturik.

Ordua iritsi zen. Behar nituen traste guziaz gutxienez bi bider errepasatuak banituen ere, «zerbait faltako zaidak» betiko topiko ihesgaitza bueltaka atsedetik gabe hantxen zebilen. Arratsaldea aurreratua bazen ere, besteak beste Abuztuko egun ja-sangaitzak ematen digun argia zela bide, begizta ahal izan genituen igarotzen ari ginen lur hezetatik lur lehorretarako zubia. Iru-nea alde hirigintz katez josia pasaz, nafar herrixka atzeko mendien odola, infernuko suaren gisan oroitmen ugarien korapiloa sortuz; nagusitu zitzaigun gaua.

MENDI IMANTATU HAIK

Ez nekien asko non akabatu behar genuen. Sallent herriko etxe dotore batean,

hain zuzen. Lehenengo gauean dena ikusterik izan ez nuenez, hurrengo goizez ezagutu izan nuen berau. Lasaitasuna eta pakearentzat ezin hobea. Jan faltarik ez, lo ezta...

Hori guzia horrela zen, baina inguruan genituen mendi imantatu haiek bultzarazten gintuen berarengantz.

Egun bat ez genuen bertan egin, non motxilak prestatu eta autoz Ordesarantz abiatu baikin. Bide gaineko mamu haien goritasuna eguzkien printzak pizten zutena batetik eta amildegi sakon haienganako errefusa bestetik, heldu ginen Ordesara.

Zuhaizti berde oparo hark bere baitan ezkututzen zuen bideari heldu genion, ur garbi gardenak garraitzen zituen errekatxoa albora utzirik, ur-azpiko harriak kontatuz zitezkeen banna banna, ze azpia eta azal artean ez baitzegoen mugarik pupilek bidalitako printzak geldituko zituenik.

Zenbait umek, jakin nahi zuten zer zen arbasoen asto-gainean ibiltze hura, zuhaitz-oparotasunez jantzirik zegoen baso handi hartan.

Gu ere bagindoazen pauso sendoz larru orlegiz apaindurik zeuden zuhaizpetik. Bizkarrean generaman zama astuna bazen ere, inguruari esker, emankorragoa zitzaigun. Bazirudien erreka beraren indarrak, energi berri bat injektatzen zigula edo zuhaizpe haren itzalak elisir berezi batez bizkortzen edo harkaitz arteko freskotasunak pausoa arintzen, edo...

TXAPEL ZURIAK

Horrela pausoka arrotzen zena, izerdiak aplakutzen zuen geure sudur eta begiak zauri ez zitzen. Halako batez, zuhaizpetik irten eta zelai batetara lurreratu ginen, non hegazti-burrubaren ordez, hegoak erabiltzen zituen txoriak ikus-entzun baitezkeen; eta non lurreratzeko pista abiadura, handituz zihuan erreka gardenaren txistua besterik ez baitzen.

Sarri begizatzen nituen oraindik gailurrean txapeltzat elur zuriz apaindurik pintore baten lauki gisa, eskaparate aurrean aurkitzen zen mendikate hura. Halako batez, nire begiak erdi ametsezko itzuliz, zaldi zuri bat bere isatsa astintzen zuenaren irudia ikusten nengoen begien aurrean. Urrundik ikustea, nola ez zen aski, berarengantz hurbildu ginenean, musuetan freskotasun lurrintsuaz ongi-etorria eman zigun. Oraindik begiak irrikiz zirautenean, musu-masailak igurtziz jarraitzen zuen ziprztin ttantta haiek agurtu beharrean geunden gorantz abiatzeko, gauak harrapatzea ez bagenuen nahi.

ZEIN ZERUKO IZARRAK?

Eta halaxe egin ere, egin genuen. Itzultzerakoan berrikusiko genuen enbidiaz, klabijetan barrera eskuek kateei indarrez eutsiz,

beheko mendizale lermatu bakanen mugimendua nabaritzen, harkaitzak garaitu eta noiz mendi-aterpearekin topo egingo ginen zain gindoazela, hara hor, non ikusten dugun: gizonak izadiak nahastu nahirik kolore imitatzaileez begirada oso anaikorra ez den batetan eskuan garagar edo koka-kola potea eta gerrian pistola zutelarik. «Impermeabilizazioa» omen!

Utz iezadazue zerbait esaten:

Zuen jantziak ez dira berezko kolorea duten belar eta hostoen gisa lurretik sortuz doazenak.

Zuen izarrak ez dira gau oskarbiz beren ziprintin errainuz atsedentzen gaituztenak.

Zuen jantziak ez dira gerla eta gizonek gizonen kontra duten ikurra baino.

Zuen izarrak ez dira gudueta gizonen odol isurtzearen ezpata zorrotzen meritua baino.

Agian, mendia zuen laguntza eta zuen armen beharraz dagoelakoan zaudete.

Beharbada, zuen obus eta granadak udako euri tantoak bezain beharrezkoak direlako ueste osoan zaudete.

Gure musuak ferekatuz datorren haizeak dio, gure buruak bustitzen dituen euriak, gure bularrak laztantzen dituen eguzkiak, gure hankazpian irristatuz doan errekatxoko oihartzunak... inoiz ez dela egon eta egongo ere, berak eskainitako ondasunen aurka suntsituz doan eskertza onartzeko. Eta guzti hau frogatzeko: tximist eta trumoi, elur eta izotz, euri eta uholde, eguzki eta su, haize eta erauntsien... mintzoa da testigu bakarra.

Iluna gainean genuenez, ezer gutxi ikusi zitekean handik aurrera. Eta bestalde, nola hotza geroz eta jasangaitzagoa zen, mendi-aterpe barrura sartu ginen afarimerienda egiteko asmoz. Hurrengo goizez garaiz altxatzeko intentzioak genituen, besteei jarrai gintzaizkion oheratze orduan.

MOTXILA BIZKARREAN

Oraindik ez zen argitasunik sartzen gau osoz irekirik egon zen leiho ttiki hartatik. Oraindik gauaren isiltasun bareak zirauen nagusi. Halako batez, norbaitek hautsi zuen zegoen literatik atereaz oinetakoen bila eta lagunei esnarazten hasi zenean. Gogoan dut, talde bat oso goiz atera zela (bostet' erdietan edo) gailurra egin asmoz, goizeko ihintzetan labainduz errazagoa bailitza.

Ordu t'erdia, bi ordu egingo genituen guk geure gorpuk oinen gainean jarri baino lehen. Jeiki ahala eman ziguten gosairia (geunden tokian jateko, izar ugariko hotelaren enbidia gabekoa).

Motxila bizkarrean hartu, jana bertan genuelarik eta irten ginen preparatibo guztiak eginda; ezer falta ez zitzaigun ustetan.

Kontxo, zakurra non duk?

A bai, hi!

Riki, Riki...

Ez zagoek, bada, horren zain egoterik gehiago!

Goruntz gindoazen bitartean, xistukatuz gindoazen alde guztietara nondik aterako gure Riki hori. Azken intentu bat egitera goazen Mendi-Aterpea bistatik galdu baino lehen, hor non gure Riki Mendi-Aterpera inguratzen den. Behin gure arrastoak usaindu zituenean ez zuen denbora luzea igaro geunden tokira heltzen.

Harkaitz erraildoi haiek inguratuz gindoazen pauso baldarrez motxila kargatsua txandatzuz metroz-metro goruntz. Bidea estua, bata bestearen atzetik joan behar horietakoa. Sugearen gisan, musker jantzi zihon pelotoiari ere aurreratu genion (ez zen harritzekoa; motxila, Cetme eta guzti baizitzaizten).

Dena harkaitz hutsa zen alderdi hartan, ez nuen espero ikusi nuena ikustea non eta han. Laku borobil bat harri guzti haien artean, alajaina!

KONTUZ HARRIA!

Laku hari begira egotea ez zen gure onerako. Oraindik astunena gelditzen zitzaigun eta berriro hasteak dituen oztopoak eta nagiak ez genituen nahi jasan. Harri libre haien gainean aurreratzeko «malabarista» izan behar zuen sarri, ze metro bat igo bezain azkar metro berbera jeisten baikenuen harri gainean irristatuz. Sugearen ikasgaia kopiatuz aurreratzuz gindoazen infernu harritar hartan...

Kontuz, harria!

Metro gutxira pasa zitzaion gorago norbaitek bere lekutik libratu zuen intentzio txarreko harri hura. Gutxi falta zitzaigun zailtasun eta oztopoz beteriko aldapa hura garaitzeko.



Fotos Alquézar

Dena harkaitz hutsa zen...

Elurra zanpatuz geunden gainontzeko lagunei itxaroten iguzki izpiak aurpegia kolortzen ziguten bitartean. Gero guziok irten ginen batera azken txanpa eginaz «Perdideren» gailurra lortzeko.

LAINOEN KARRERA

Inguratzen gintuzten mendien gainetik egoteak, hitzez adierazi ezin den barne zirrarra hura, luma herdoildu honen bidez zuri ematea ezinezko zait. Zu zeuk behar duzu igo bertara. Eta, igotze horretan mendiarekiko indar imantatu ikusezinen egia deskubritu, zure buru gainetik dihoazten laino zurien karrera ikusiz.

Itzultzerakoan hobeto ikusi izan genuen, lehenago denbora laburrez ikusi genuen lakua. Eta berriro pauso baldarrez heldu ginen Mendi-Aterpera.

Zori ona izan genuen ze, eguraldia aldatzen hasia baitzen eta goian haizeak garratzen zituen laino beltzak zerbait txarra bazekartela susma zitekeen ikusi orduko. Sartu eta jaten hasia egin genuen, non kazkabar jasa itsu bat botatzen duen, leihoko kristal haieetatik geneukan panoramika, ur tianttoen goiti-beherako karreran itzuliz.

Begientzat ez bazen hain atsegin barrenak orduan eta sensazio hobez jabetzen zen (bertatik irten behar genuen ideia kenduz).

Behin aterrunea atzeman genuenean, hartu motxila eta behin eta berri bidean jarri ginen hurrengo geldialdiraino. Bitartean euri piskat izan genuen, baina; bazirudien harrotzen genituen hautsak ez harrotzeko ari zela.

OASIS BAT GEURE EZTARRIETARAKO

Bueltan zetozen baita ere, goizez aurreratu genituen: Cetme, motxila eta kartutxoan zama astuna ezin garratuz, zapi zuri gabeko ohe hotza zutela amets (Sargento bat aurrean, bati baino gehiagori mendiarekiko gorrotoa piztuz).

Gorakoan behar bezala ikusi gabe utzi genuen zaldi isats mugikor hura ikusiz, freskatu genituen beso-oinak. Elur urtu haien zuritasuna adinako handitasunean mozkorturik; ohartu gabean joan zitzaigun ez dakit zenbat denbora, berriro indar gaztez Ordesaraino iristeko.

Kilometroak falta ziren zuhaitz sendo haien itzalaz babesturik gentozela non behan gelditu ziren maitte haiek musukatzen irrikaz inguratzen zaizkigun.

Lehenengoz, ia itorik zeuden oinak oxigenatu eta guztiok batera eztarri basamortuar haiek asetzeko ondoan geneukan oasisara hurbildu ginen (Taberna esan nahi dut, noski!). Beraien aipamena egiten dut, baraiak ere bere parte ipini zutelako. Eta bereziki, oraingoz ezkutuan gordetik (amaren sabelean) jaiotzear zegoen Garaziri, egunen batetan naturaren altxorrek dasta ditzan.